

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **10/2020 Foru Araua, uztailaren 8koa, Arabako Ekialdeko Lautadako Ur Partzuergoari emandako ondasunak Arabako Foru Aldundiari itzultzea baimentzen duena, erakunde hori desegin delako**

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko uztailaren 8an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

10/2020 Foru Araua, uztailaren 8koa, Arabako Ekialdeko Lautadako Ur Partzuergoari emandako ondasunak Arabako Foru Aldundiari itzultzea baimentzen duena, erakunde hori desegin delako.

#### ZIOEN AZALPENA

Arabako Ekialdeko Lautadako Ur Partzuergoak, 2019ko apirilaren 15ean egindako bilkura berezian, erabaki du erakunde hori desegitea, eta Arabako Foru Aldundiari itzultzea bere garaian hark Partzuergoari emandako ondasun eta eskubide guztiak.

Asparrena, Agurain eta Donemiliagako Udalek eta Arabako Foru Aldundiak osatu zuten ur partzuergo hori. Partzuergoko estatutuak, bai eta besterendu beharreko ondasun eta eskubideen behin-behineko zerrenda ere, behin-behinean onetsi ziren Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 31ko 34/1998 Foru Dekretuaren bidez. Geroago, 627/1998 Erabakiak, irailaren 22koak, behin betiko onetsi zuen Aldundiak Partzuergoarekin bat egitea eta erakunde horrentzat ondasunak eta eskubideak doan besterentzea, Arabako Batzar Nagusien baimena jaso ondoren. Ekainaren 15eko 18/98 Foru Arauan dago jasota baimen hori.

34/1998 Foru Dekretuaren 28. artikulua dioenez, Arabako Foru Aldundiak Partzuergoari transferitzen dizkio honako hauek: "ur lagapenak, eraikitako edo eraikitzen ari diren urtegiak, egindako eta egiten ari diren hoditeriak, ur arazketarako estazioak, kolektoreak eta gainerako instalazioak, baliabide materialak eta lehen mailako sareari erabat edo partzialki esleitutako proiektuak"

2019ko martxoan eta apirilean, Partzuergoak onespina eman zion Agurain, Asparrena eta Donemiliagako Udalak erakundetik irteerari. Beraz, Arabako Foru Aldundia izanik Partzuergoko erakunde bakarra, bidezkoa zen hura desegitea, 34/1998 Foru Dekretuaren 35. artikuluko c) apartatua adierazitako arrazoiatik: "izaera berdineko kideak bakarrik bakarrik geratzen direlako"

Geroago, Lurralde Orokaren Zuzendariaren urriaren 16ko 2003/2019 Ebazpenaren bidez, ezeztatu egin da 427 zenbakiko inskripzioa, Arabako Ekialdeko Lautadako Ur Partzuergoari dagokiona, Arabako Toki Erakundearen Foru Erregistroan.

Partzuergoa desegiten bada, 34/1998 Foru Dekretuaren 36. artikulua xedatutakoaren arabera, "bera osatzen duten erakundeek transferitutako ondasun, instalazio eta eskubideak ez dira partzuergoaren helburuetara esleiturik egongo eta erakundearen esku geratuko dira berriro ere"

Arabako Lurralde Historikoko Foru Ondareari buruzko martxoaren 27ko 11/2019 Foru Arauaren 78. artikuluan ezarritakoaren arabera, doako besterentzea erabakitzeke eskumena duen organoari dagokio ondasun eta eskubide horiek itzultzea baimentzea.

Bere garaian Partzuergoari utzitako azpiegiturak 1.174.500,75 euroan zenbatetsi dira. Zenbateko hori 600.000 eurotik gorakoa denez, 11/2019 Foru Arauaren 76.1 d) artikuluan ezarritakoari jarraiki, Batzar Nagusiek baimendu behar dute aipatutako ondasunak eta eskubideak itzultzea, Foru Gobernu Kontseiluak hala eskatuta.

**ARTIKULU BAKARRA.** Baimentzea Arabako Foru Aldundiaren ondarrera itzul daitezela jarraian zerrendatzen diren ondasun, instalazio eta eskubideak, zeinak Arabako Ekialdeko Lautadako Ur Partzuergoari eman baitzitzaizkion martxoaren 31ko 34/1998 eta irailaren 22ko 627/1998 Dekretuen bidez, ekainaren 15eko 18/98 Foru Arauan jasotzen den Arabako Batzar Nagusien baimenarekin, Partzuergoa desegin delako:

1. Hoditeriaren 1. fasea, Araiako iturburua.
2. Hoditeriaren 2. fasea, Araiako iturburua.
3. Aguraingo hoditeria.
4. Durrumako ur biltegia.
5. Narbaxa Arriolako hornidura berritzea.
6. Erdoñako ur biltegia.
7. Adana eta Aziluko ur biltegiak.
8. Klorazioa Albeizen eta Ametzagan.
9. Andoingo ur biltegia.

**AZKEN XEDAPENA.** Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 8a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**